



## Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan trantsizio ekologiko jasangarria eta bidezkoa sustatzeko programa arautzen duten oinarri arautzaile orokorrak

### II ERANSKINA - TRANTSIZIO EKOLOGIKO JASANGARRI ETA BIDEZKOA: ENPRESAK

Trantsizio ekologikoa enpresetan bultzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak

Urtea :2024 | Ekonomia Sustapena

#### DESKRIBAPENA

Gipuzkoako enpresa sarean eta ekosistema sozioekonomikoan trantsizio ekologiko jasangarria eta bidezkoa sustatzea, bere jarduera ekonomikoaren lehiakortasuna erraztuko duten enpresa eredu ekologikoagoetara, jasangarriagoetara eta inklusiboagoetara eraldatuz.

#### ENTITATE ONURADUNAK

2.1 Entitate onuradunak izango dira:

- Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta, klusterrak.
- EAEn kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak.

d) Gipuzkoan kokatutako EAEn ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7. oinarrian aipatzen den aitortpen erantzulea aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren aitortpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitatearen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

2.3 Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta Sozietate publikoak, salbu 2.1 b), c) eta d) oinarritan ezarritako entitateak

#### DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak balioa sortzeko eraldaketa-proiektuak garatzea izango da, enpresetan eta enpresentzat, honako eremu hauetan: trantsizio ekologikoa, trantsizio justua,



ekonomia zirkularra, bioekonomia, biodibertsitatea, garapen jasangarria, gizarte balio partekatua, garapen jasangarriko helburuak, jasangarrtasun iraunkortasun hirukoitza (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa), negozio inklusiboak, honako hauetara bideratuta:

- Enpresek eta/edo jarduera-sektoreek diagnostikoak eta planak egitea.
- Enpresen negozio-estrategietan txertatzea, inpaktu positiboak sortzeko eta/edo inpaktu negatiboak minimizatzen.
- Sortzen diren aukeretara egokitutako enpresen estrategia eta balio-katea diseinatzea edo birdefinitzea.
- Negozio ereduak bideratzea eta/edo ikuspegia txertatzea balio kate osoan
- Balio erantsiko negozioak eta jardunbide egokiak modelizatzea
- Konpetentzia- eta ikaskuntza-beharrak diagnostikatzea eta/edo planifikatzea.
- Enpresetako langileen trebezia eta gaitasun berdeak garatzea.
- Inpaktu neurtzeko, ebaluatzen eta/edo enpresa-adierazleak lantzeko sistemak ezartzea
- Balio proposamen berriak artikulatzea hibridazioaren bidez
- Balio proposamen berrien enpresa bideragarritasuna
- Arlo sozialeko, ingurunekeo eta lurraldeetako behar, erronka eta aukerak asetzeko modu berriak bideragarriak egitea, ekonomiaren abantaila erlazonalak eta pertsonen, enpresen eta lurraldearen ahalduzaren potentzialitateak optimizatuz.
- Enpresa edo lurralde arloko gaitasunak eta balio-kateak identifikatu eta garatzea, baita horietan oinarritutako aukerak ere.
- Gipuzkoako enpresen ezaugarri, behar, eta aukerei egokitutako strategiak diseinatzea.
- Enpresa edo lurralde arloko gaitasunak eta balio-kateak identifikatu eta garatzea, baita horietan oinarritutako aukerak ere
- Antolakuntzako eta lurraldeko esku-hartze ereduak garatzea
- Zabalkunderako eta sentsibilizaziorako eta jardunbide egokietarako ekintzak.
- Enpresekako, sektorekako eta sektorearteko foroak garatzea, ezagutzak eta/edo proiektuak sustatzeko.
- Enpresak eta/edo haien enpresa ingurunekeo eragileak barne hartzen dituzten lankidetzak sareetan parte hartzea.

## DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

5.1 Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 40a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

**Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta  $x \cdot 12 \cdot 1,25$  / Urteko ordu kopurua.**

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.



Proiektuan emandako ordenen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiari dagozkienak bakarrik, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan gastu mota bakoitzerako ezarritako mugekin.

5.4 Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu enpres elkarte eta klusterren kasuna; horietan, zeharkako kostu gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

## DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien **% 75 izango dira.**

## EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

## BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan estatalak, izan Europar Batasunekoak edo izan nazioartekoak, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekin

## BETETZEKO EPEAK

- Eskerak aurkezteko epea: **2024ko UZTAILAREN 3ean, goizeko 12:00etan amaituko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**
- Proiektuen exekuzio data: **2025eko EKAINAREN 30a.**
- Proiektuak justifikatzeko data: **2025ko UZTAILAREN 30a.**

## ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa ehunean eta ekosistema sozio-ekonomikoan trantsizio ekologiko jasagarria eta bidezkoa sustatzeko programaren 2024ko oinarri arautzaileak eta deialdia:

Oinarriak: 2022/11/15eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaz onartu zen -2022/11/21eko GAO 220 zk.- Diputatuen kontseiluaren 2023ko otsailaren 21eko akordio baten bidez aldatu - 2023/03/03 GAO 43 zk.

2024ko Deialdia: 2024/05/21eko Diputatuen Kontseilaren - 2024/05/30 GAO 104 zbk.



## ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/trantsizio-ekologiko-jasangarria-eta-bidezkoa/enpresak>

- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

## EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

### EKONOMIA SUSTAPENeko ZERBITZUA

- Kudeaketa administratiboa: 943.112227
- Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.eraldaketa@gipuzkoa.eus